ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko otsailaren 28a, asteazkena • 25 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Garaio, Landa eta Mendixurko lurralde parkeetan, Uribarri Ganboako urtegiaren adar hezeetan eta Uribarri Ganboako urtegiaren ibilbide berdearen inguruan jendearen harrerarako, ingurumen hezkuntzarako, bizikletak maileguan uzteko eta ingurumen, kontrol eta zaintza zerbitzuak kontratatzeko prozedura irekia

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 20ko 80/2018 Erabakia betez eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, prozedura ireki bidezko deialdia iragartzen da, Garaio, Landa eta Mendixurko lurralde parkeetan, Uribarri Ganboako urtegiaren adar hezeetan eta Uribarri Ganboako urtegiaren ibilbide berdearen inguruan jendearen harrerarako, ingurumen hezkuntzarako, bizikletak maileguan uzteko eta ingurumen, kontrol eta zaintza zerbitzuak kontratatzeko.

1. Erakunde esleitzailea.

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua.

c) Espediente zenbakia: 18/14

2. Kontratuaren xedea.

a) Xedearen azalpena: Garaio, Landa eta Mendixurko lurralde parkeetan, Uribarri Ganboako urtegiaren adar hezeetan eta Uribarri Ganboako urtegiaren ibilbide berdearen inguruan jendearen harrerarako, ingurumen hezkuntzarako, bizikletak maileguan uzteko eta ingurumen, kontrol eta zaintza zerbitzuak kontratatzeko prozedura irekia.

b) Loteak eta zenbakiak: ez dagokio.

c) Gauzatzeko lekua: Garaio, Landa eta Mendixurko lurralde parkeak eta Uribarri Ganboako urtegiaren ibilbide berdearen inguruak.

d) Gauzatze epea: bi urte luzagarriak beste bi urtera (urtez urte) espresuki eta elkarren artean adoztuta.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 20ko 80/2018 Erabakiaren bidez onartua.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:

Lizitaziorako oinarri izango den kontratuaren aurrekontua kopuru honetan ezarri da: 217.468,90 euro, BEZa barne.

5. Bermeak.

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a) Erakundea: Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan edo Arabako Foru Aldundiko web orrian www.araba.eus; sakatu "kontratatzailearen profila".

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

b) Helbidea: Probintzia plaza, 4, 2. solairua.

c) Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001

d) Telefonoa: 945 181872

e) Telefaxa: 945 181754

7. Kontratistaren berariazko betekizunak.

Beste zenbait betekizun: kontratistaren sailkapena. Ez da sailkapenik eskatzen

8. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko epea: 3 de abril de 2018. Posta bidezko eskaintzarik aurkezten bada, Kontratuen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian adierazitakoak.

c) Aurkezteko lekua:

1. Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

2. Helbidea: Probintzia plaza, 5 - beheko solairua.

3. Herria eta posta kodea: 01001 Gasteiz.

d) Lizitatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: esleitu arte.

e) Aldaeren onarpena: ez.

9. Eskaintzak irekitzea.

Eskaintzak (C gutun azala) aurkezteko epea bukatu eta hirugarren egun baliodunean, kontratatzailearen profilean adieraziko den tokian.

SPKLTBren 150.2 artikulua aplikatzen bada, C gutun azala aurreko laukian adierazi den bezala irekiko da; A gutun azala, berriz, honela:

A gutun azala interesdunei behar bezala jakinaraziko zaien egunean irekiko da, formulen bidez ebalua ezin daitezkeen irizpideak baloratzeko txostena landu eta gero.

10. Argibide gehiago. Ikus administrazio klausulen agiria.

11. Iragarki gastuak. Esleipendunak ordainduko ditu.

12. Iragarkia Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialera bidali zen eguna: 2018ko otsailaren 20a

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 20a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.02.28 06:37:21 Z